

XINAURRIA

Xinaurri bat paretan goiti, ezin altxatuz ari da bildu duen ogi papurra.

Bi xinaurri paretan goiti, ezin altxatuz ari dira bildu duten ogi papurra.

Hiru...

Lau...

...

Hamar xinaurri paretan goiti, hor azkenik altxatu dute bildu duten ogi papurra.

Xi-nau-ri bat pa-re-ta goi-ti e-zin al-txa-tuz a-ri da bil-du du-en o-gi pa-pu-rra.

Bi xi-nau-ri pa-re-ta goi-ti e-zin al-txa-tuz a-ri di-ra bil-du du-ten o-gi pa-pu-rra.

HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Marrazki egokia hautatu kantua eman arau. Kantua gogoz ikasi.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerari egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUAN IHARDUN. Xinaurrien urratsak mimatu. Eskuina landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutzera ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Bere burua kokatu leku batean. ◆ Bere buruari ezaubideak eman eta kodetu. ◆ Denboraren eta espazioaren markak adierazi.
MUNDUARI OHARTU. Hamar arte kondatzen ikasi.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Gauzen ezaugarri zenbait ezagutu, horien konparatzeko, bereizteko, sailkatzeko eta ordenatzeko. ◆ Zenbaki prozedura bat (edo beste prozedura bat) obratu. ◆ Zenbaki ezagutuen segida luzatu eta zenbatzeko baliatu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea)

1. Lehen jokoa :

Haurrak jarririk daude, errondan.

- Erakasleak/animatzaileak taldean 10 fitxa banatzen ditu. Horretarako, baliatzen du hurrengo orrian den marrazkia (10 xinaurrik altxatu ogi papurra). 10 fitxen egiteko, aldian xinaurri bat ezabatzen du (tinda xuriarekin). Ondorioz, fitxa bakoitzean agertzen da ogi papurra gehi xinaurri bat, edo bi, edo hiru... hamarretaraino.
- Kantua eman arau, haurrek aldizka, une bakoitzari doakion marrazkia (erran nahi baitu xifreen ordenan) erakutsi behar dute.

2. Bigarren jokoa :

Hamar haur jarririk daude, errondan.

Errondaren erdian, haur bat manta /estalgi baten gainean jartzen da.

Xinaurri bat... ⇒ Haur bat xutitzen da eta saiatzen da mantaren altxatzen.

Bi xinaurri... ⇒ Eskuin aldean den haurra xutitzen da eta bien artean saiatzen dira mantaren altxatzen.

Hiru xinaurri... ⇒ Molde berean segitzen dute, aldi guziz eskuinaldekoa xutitzen delarik besteen laguntzeko.

.....

.....

Hamar xinaurri... ⇒ Denek batean mantaren gainean den haurra altxatzen dute (mantari lotuz).



Hamar haur izan arte, erdikoa ez dute altxatu behar.

3. Xinaurrien urratsak mimatu : tipi eta zalu, oin bat bestearen aitzinean emeki pausatuz.

☺ Marrazkia margo ezazu eta xinaurriak konda itzazu.



